

## Babesa eta arnasa hartzea

**IRUNEKO MANIFESTAZIOA** balore handikoa da Nafarroako euskaldun eta euskaltzaleentzat. Euskaldunok minoria gara, are gehiago euskaraz bizi garenok, baina populazioaren zati oso handi baten laguntza eta sostengua dugu. Ez da nahiko, zalantzarik gabe, prozesu linguistikoaren garapenak hizkuntzaren erabilerari lotutako beste erabateko sostengu eta bilakaera behar baitu. Ez da nahiko, baina bai ezinbestekoa, masa sozial handi hori gabe Nafarroan euskarak nekez lor baitezake igeri egin ahal izateko behar duen ura.

Alberto Catalan Hezkuntza Sailburuak Foru Legebiltzarrean bota berri duen "Gu gehiago gara" mesprezugarriarekin laburbiltzen da UPNk, PSNk eta CDNk babesten duten hizkuntza politika murriztailea. Eta gehiengoa dugunez, ez dizuegu utziko euskaldun bizi ahal izateko aukera garatzen, ez du merezi; horixe da finean esaten digutena. Batzuek gorrotatik, besteek mesprextutik eta modernotxoenek euskararen behar eza eta diruaren aitzakiarekin; hau da, bakarrik dago dirua itxurakeria egiteko eta legea bere murriztuz betetzeko.

Inork ez luke ulertuko osasunaren eremuan eskubide desberdintasunik egotea, esaterako, Nafarroako iparraldekoak oro har hegoaldekoak baino argalagoak direlako. Inork ez luke ulertuko eremu batekoek dietak eta analisiak egiteko aukera doan izatea, eta besteek ordaindu behar izatea. Nafarroan hori egiten da bertako hizkuntza batekin, batzuek badituzte legezko eskubideak –garapenera beste kontu bat da– eta besteek ez.

Etorkizuneko errezetetan ez da mirakulu handirik, baina asmatu



ARGAZKI PRESS / L.F.A.

egin beharko da horietan. Euskaldunen hiztun komunitateak euskaraz bizitzeko gogoia erakusten jarraitu beharko du. Bada gogorik, eta horren datu ugari daude, baina baita neke sintoma batzuk ere. Eremu politikoan ere behar da bultzadarik, lehen lehenik diru murrizketak eteteko, eta ondoren Euskararen Legea aldatzeko. Eta bada, halaber, arnasa hartzea ahalbideratzen duten larunbatekoaren gisako mobilizazioen beharra.

**HERNANIARREN BATZUK** badira gure erredakzioan eta galdetu diet nola doan beren herrian hasi berri den zaborren atez ateko bilketa. Oro har ongi, hasiera guztietan diren arazo txikiak izan direla, baina jendea pentsa baino samurrago ari dela moldatzen diote.

Hilabete batzuk beharko dira bederen emaitza egonkorak ikusteko, baina ez da zalantzarik begi askoren arreta erakarriko dutela. Ia 20.000 laguneko herri batean birziklatze emaitza onak lortuz gero, atez atekoa Gipuzkoa osoan

egin litekeela erakutsiko litzateke. Debagoienan zorrotz ari dira egiten jarraipena, hurrengo froga han izan liteke.

Usurbilgo emaitza ikusgarri jarraiki, Oiartzun eta Hernanik ekin diote orain atez atekoaren ibilbidearekin. Denak ematen du aditzera zaborren kudeaketan hau dela etorkizun hurbil eta ertaineko apustu jasangarriena. Atez atekoa, birziklatzeko sistemarik eraginkorrena dela erakutsi da orain arte. Horregatik bakarrik mereziko luke itxarotea eta Zubietako erraustegi proiektua sei urtez atzeratzea.

Zaborrari dagokionez, helburua ez da zaborra elektrizitate bihurtzea, ahalik eta gutxiena sortzea baizik eta sortzen dena ahalik eta gehien birziklatzea. Ondoren dator zabortegia, errausteta edo gasifikazioaren eztabaida.

**ZAPATEROKADA** iragarri da jada, espero bezala, baina ondoren ere denak nahasian jarraitzen du. Bitxia da, joan den astean burtsak eta inbertsoreak pozarren ziren Europar Batasunak krisiari elkarrekin aurre egiteko erakutsitako jarrerarekin. Denen artean 500.000 milioi euro jarriko dituzte merkatuetan konfiantza barreiatzeko –eta 250.000 gehiago Nazioarteko Diru Funtsak–, hau da, larri dabilzan estatuek –gehienak– beren zorra ordainduko dutela bermatzeko.

Baina merkatuak ez dira fio, badakite EBk ez duela diru hori itsulapikoan gordeta. Ez, diru hori jarri egin behar da eta horretarako ere, beharko balitz, gerrikoa estutu beharko litzateke. Kapitalismoaren inoizko krisirik latzenetik ateratzeko, gerrikoa estutzenarena hasi besterik ez da egin.